

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Kostuak murrizteko, produktu bukatuak guk sortuko genituzke baino hau lortzeko, externalizazioa erabiliko genuke produktu erdi-bukatuak lortzeko. Hau da, beste enpresa batzuei erosiko genizkieke haien produktuak. Adibidez, dinamo bat edo hau egiteko pieza erosiko genituzke eta hauek beste pieza batzuei lotu gure makina bukatzeko. Adibide gisa bizikleten enpresa bat daukagu. Enpresa honek beste batzuei erosten die karraka, koadroa, gurpilak, erradioak... eta hauek guztiak batzen ditu eta, ostean bizikleta oso bat saldu. Gutxi gora behera hori da egingo genukeena.

Hobetzeko aukera funtsezkoa izango da gure enpresa berrian. Ingeniari, fisikari eta beste hainbat aditu kontratatuko genituzke. Horrela, makinen errendimendua etengabe hobetuko genuke eta teknologia berriekin lan egin ahalko genuke. Atal hau gabe ezin izango genuke gure enpresa aurrera eraman. Aditu hauek aparte, unibertsitateen eta beste enpresa batzuen laguntza bilatuko genuke produktuak behin eta berriro berritzeko.

Lehen aipatu dugun moduan, gure produktuak ez dute iraungitze data izango ez dugulako dirua lortuko produktu batekin, baizik eta eredu asko egingo ditugu hainbat modu desberdinetan erabiltzeko. Legoak, adibidez, ez dute iraungitze data ez dutelako behar. Behin eta berriro produktu berriak ateratzen dituzte. Hori da guk egingo genukeena, behin eta berriro produktu berriak sortu eta energia leku ezberdinetatik atera. Hori gutxi izango balitz bezala, konponketa talde bat izango genuke apurtutako produktuak konpontzeko. Erabaki hauekin, ez genituzke sortuko gehienezko hondakinak.